



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo

EUSKARA BATZORDEAK 2009ko OTSAILAREN 19an IZANDAKO BILKURARI DAGOKION AKTA.-

Batzarreratuak:

Idoia Fernández Antia and. (Euskara Zinegotzia)
Aloña Arronategi Azurmendi (Zinegotzia)
Igone Olabarria and. (Gernikako AEK)
Esteban San Pedro jna. (A. Villasante Udal Euskl.)
Kepa Karakuel jna. (Bust. Eusk. Bizi Elk.)
M^a Luisa Urrtestarazu and. (Seber Altube Ikastola)
Estiñe Astorkia jna. (Euskara dinamizatzailea)
Maialen Basterra and. (Ezker Abertzalea)
Anabel Gerrikabetia and. (Mertzedeko ikastetxea)
Naira Korta and. (Gazte Asanblada)
Rosa Okariz and.

Idazkaria:

Bittor Zarrabeitia jna (Hizk. Norm. Tek. I)

Hasiera ordua: 19:00

Amaiera ordua: 20:30

1).- Aurreko bilerako akta (2008ko azaroaren 5koa)

Aurreko bileran egiten zen planteamendua dela-eta Euskara Zinegotziak aipatu du ezinezkoa dela aurtengo aurrekontuaren zehaztasunetan sakontzea, udal aurrekontuaren aurreikuspenak ez daudelako ebatzita.

Bestalde, akta ontzat eman da.



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo

2).- Euskara ikasteko diru laguntzen araudia

Euskara Zinegotziak, aurreko bilkuran esandakoarekin lotuta, beste eredu batzuk (Bermeo, Igorre) ere aztertu direla aipatu du eta gure udalerrian orain arteko ereduaren eskema mantendu beharko litzatekeela uste du, jendea euskara ikastera erakartzeko borondateagatiko diru laguntza eta beste zati bat asistentziagatikoa.

Batzarrerako deialdiarekin batera bidalitako hausnarketa-agiria azaldu du eta, dioenez, horrek dakarren arazoa gestioarena da, baina justutzat aurkezten du proposamena. Beste kontua bat da planteatzen diren aldaketetarako baremoak eta zehaztasunak.

Udal Euskaltegiko ordezkariak aipatu du mailaketa dela-eta neurtzeko arazoak daudela, euskaldun zaharrak ere euskalduntzeko prozesuaren arabera lortzekoak diren mailetan kokatu beharko liratekeelako eta euren tratamendu berezia ematen dielako.

AEKko ordezkariaren ustez, egiten den mailaketaz gain, beste atal bat aurreikusi beharko litzateke alfabetatzea behar dutenentzat, kaltegarria delako horiek A1 mailan kokatzea, euskaldun berriekin nahastea hain zuzen.

Euskara Zinegotziak dio kontuan hartu beharreko beste irizpide bat baliabide ekonomikoei probetxua ateratzearena dela eta diruz lagundutako ikasleak aurrera egitearena. Beraz, diru laguntza ematerakoan, kontuan hartzekoa da aurreko ikasturtean eskatu bazuen eta izan zuen asistentzia aztertzea.

Udal Euskaltegiko ordezkariaren ustez, ez da ahaztu behar eskualdearen egoera soziolinguistikoa eta euskaltegietara doan ikaslearen tipologia, asko euskal zahar alfabetatu bakoak izanik eta horiek goi mailetara doazela. Beraz, ez litzateke justua izango beheragoko mailetako ikasleak saritzea eta alfabetatzera doazenek diru laguntza gutxiago izatea.



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo

Euskara Zinegotziak egiten duen hausnarketa argitu du. Bere ustez, non ekin behar den jakin behar dugu eta lehentasuna non markatu eta berak argi ikusten du ezerezetik euskara ikasten abiatuko denari eman behar zaiola laguntza gehiago.

Erabakia:

1.- Alfabetatzeko atal bat txertatzea diru laguntzak emateko proposatutako koadroan/mailaketan, B1/B2 mailen tartean. Horren arabera, baremoa aztertuko da hurrengo bilkuran.

2.- Eskaerak aurkezteko epea:

- **Ikasturte osokoetan, abenduaren 15erako.**
- **Barnetegietakoak, bukatu eta hilabetekoa epean.**
- **Trinkoen kasuan, bukatu eta hilabetekoa epean.**

3.- Ebazpena: diru laguntza guztiak abenduan ebatziko lirateke.

4.- Diru laguntzen baremazioa, diru-sarrerekiko proportzionala izango da.

5.- Asistentziagatiko diru laguntza bere horretan mantentzea, %35.

6.- Hurrengo urtean kontuan hartzekoen arabera ezarri beharreko zigorrak:

- **Ikastaroa uzteagatik (kasu honetan kasuistika finkatu beharko litzateke eta salbuespeneak ere kontuan hartu).**
- **Asistentzia minimoa: %50 (hortik beherakoa balitz, hurrengo ikasturtean ukatu egingo litzaioke laguntza ikasleari).**

3).- Interneteko ataria.

Euskara Zinegotziak azalpenak eman ditu Euskara Zerbitzuak eskuartean daukan egitasmo bati buruzkoa: euskararen atalari lotutako web orria. Argitu duenez, materiala badago, baina Udalak bere web orria noiz egokitu zain gaudenez, Euskara Sailak bere atari propioa egitearen aldeko pausuak emateko prest dago. Gero konpondu beharko lirateke udalaren web orri berriarekiko loturak eta abarrak. Aipatu duenez, egitasmo hori



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo

hiru fasetan egitea pentsatu da, urte bateko aurrekontuarekin burutzea ezinezkoa delako.

Erabakia:

Egitasmoarekin jarraitzea eta urteko aurrekontuaren araberako burutzapenari ekitea.

4).- Korrika 2009.

AEKko ordezkariak azaldu ditu 2009ko Korrika-ren nondik-norakoak. Martxoaren 5ean aurkezpena izango da Gernika-Lumon eta gure udalerrira apirilaren 3an iritsiko da: herrian bi buelta emango dira. Horren atarirako, Korrika kulturala antolatu da Kultura Sailarekin elkarlanean. Egunez iritsiko denez, “korrika txikia” egitea ez dute ikusten. Gazte etorkinen kontua aintzat hartuta ere, pelikula jardunaldiak antolatuko dira Zine Klub Elkartearekin batera eta Sebastopoleko titiriteroak bitarteko, interkulturalitatea lantzea xede.

5.- Kontseiluarekin elkarlanean (2008ko balantzea eta 2009rako aurreikuspena).

Euskara dinamizatzaileak azaldu ditu Kontseiluarekin otsailaren 16an izandako bilkuran aztertutakoak eta Euskara Zinegotziak argitasunak eman ere horretarako abian dagoen bilguneaz. Hona hemen daturik aipagarrienak:

2008ko emaitzak (Bai euskarari kanpaina):

- 32 ziurtagiri gure udalerrian.
- Beste lau bat bidean.
- Balorazio oso positiboa.

2009rako proposamenak:

- Ziurtagiria eskatuko duten berriei diruz laguntzen jarraitzea.



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo

- Tabernen kasuan ziurtagiria ez badute baloratzen, beste bide batzuk jorratu hori lortzeko.
- Zabalkundea egiterakoan, ziurtagiridunak sailkatzea komeni da (bakoitza dagokion mailan kokatu).
- Kontseilutik abiatuko diren kanpaina orokorrak:
 - o Aseguru-etxeei begirakoa: aste santuaren inguruan.
 - o Merkataritza/ostalaritza eragitekoa: ezagutza aldetik diagnostikoa Euskal Herri osoan, horren zabalkundea egin eta, irailean, matrikulazioa kanpainarekin lotu.
 - o Nominak euskaraz: aholkularitza zerbitzuetan eragitekoak.

Euskara Zerbitzuak martxan dituen egitasmoen arabera, Kontseiluak 2009an jorratu nahi dituen hiru kanpaina horiek oso-osoan egiten dute bat haiekin eta gure lan esparruan eragiteko proposak izango dira.

5).- Norberak lekarkeena.

Ez da galderarik azaldu.

Beste aztergairik ez dagoenez, amaitutzat eman da batzarra.

EUSKARA ZINEGOTZIA

HIZK. NORMALIZAZIORAKO TEKN. 1

Idoia Fernández Antia

Bittor Zarrabeitia Bengoa